



## AURKIBIDEA

ORRIALDEA

## SUMARIO

PÁGINA

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

#### *Erabakiak*

Arabako Biltzar Nagusietako Mahaiaren Akordioa Arabako Biltzar Nagusiak kudeatzen duten fitxategi pertsonal automatizatuak arautzeko. ....

Gehigarria

#### *Mozioak*

Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioa, zeinaren bidez Arabako Biltzar Nagusiei proposatzen dieten Arabako Foru Aldundiari eska diezaioten Onsoño herrira sartzeko A-4603 errepidea konpontzeko lanak 2005. urtean Bideak Hobetzeko Planean sar dezaten. ....

Gehigarria

#### *Iragarkiak*

2005. urterako Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua gauzatzeko Foru Arau Proiektua .....

Gehigarria

Arabako Diputatu Nagusiari egindako interpelazioa, jakiteko Aldundiak zer egin nahi duen Gazeako lotua osoan Arabako Errepideen Plan Integralean, bai eta gai horri buruz kabineteko kideek egin dituzten zenbait adierazpeni buruakoa .....

Gehigarria

### JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

#### *Acuerdos*

Acuerdo de la Mesa de las Juntas Generales de Álava de regulación de los ficheros automatizados de carácter personal gestionados por las Juntas Generales de Álava .....

Suplemento

#### *Mociones*

Moción para debate en Pleno, por la que se propone que las Juntas Generales de Álava insten a la Diputación Foral de Álava a incluir la reparación de la carretera A-4603 de acceso al pueblo de Onsoño en el Plan de Mejoras Viales para el año 2005. ....

Suplemento

#### *Anuncios*

Proyecto de Norma Foral de Ejecución del Presupuesto del Territorio Histórico de Álava para el año 2005 .....

Suplemento

Interpelación al Diputado General de Álava, sobre los propósitos del Ejecutivo acerca de la inclusión del enlace completo de Gazeo en el Plan Integral de Carreteras de Álava, así como sobre las declaraciones dispares realizadas por los miembros de su gabinete sobre este tema .....

Suplemento



**I - ARABAKO FORU ALDUNDIA**

**Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak**

**Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak**

920/2004 Erabakia, azaroaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Foru Aldundiak Arraia-Maeztun, Aramaion eta Gasteizen dituen zenbait baso onura publikoko izendatzea onartzen da. . . . .	10.003
918/2004 Erabakia, azaroaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez Gazteriaren Foru Erakundearen enplegu eskaintza publikoa onartzen da. . . . .	10.005

**Foru Aginduak**

**HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA**

880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa. Honen bidez, Lutra lutra Igarabaren (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen da, Arabako Lurralde Historikoan. . . . .	10.006
--	--------

917/2004 Foru Agindua, azaroaren 4koa. Honen bidez, abuztuaren 9ko 717/2004 Foru Aginduan antzemandako akatsak zuzentzen dira. Foru agindu haren bidez ezarri zen Kuartangoko ehiza-esparru sozialaren aprobetxamendua erregulatzen zuen arautegia, 2004-2005 ehiza-garairako. . . . .	10.014
--	--------

**Iragarkiak**

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**

Jakinarazi behar eta zenbait arrazoi direla-medio interesdunei berei zuzenean jakinarazi ezin izan zaien administrazio-egintzak. . . . .	10.015
Jakinarazi behar eta zenbait arrazoi medio jakinarazi ezin izan diren administrazio egintzak. Zerrendan lehena: Explotaciones Hoteleras Bensa SL. Azkena: Sociedad Talleres Mengar SL. . . . .	10.016

Egintza administratiboak jakinaraztea ondare eskualdaketa, egintza juridiko dokumentatu eta oinordekotza eta dohaintzen jasotzaile diren subjektu pasiboei. . . . .	10.016
---	--------

**HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA**

Enkante publikorako deialdia, "Murguiko "RAL" izeneko lekuan dagoen zuhaitzi baten baso aprobetxamendu berezirako". Aprobetxamendua Arabako Foru Aldundiarekin partzuergoan egingo da. . . . .	10.017
--	--------

**GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA**

"Carlos Abaitua" aterpetxean 2005ean janariak emateko zerbitzurako lehiaketa. . . . .	10.018
"Jorge Díez Elorza Espejoko" aterpetxean 2005-2006 urteetan janariak emateko zerbitzurako lehiaketa. . . . .	10.019

"Zuhatzako Irlako" aterpetxean 2005-2006 urteetan janariak emateko zerbitzurako lehiaketa. . . . .	10.021
--	--------

**GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA**

"Laneko arropen eta jantzien horniketa" egiteko kontrataziorako lehiaketa publikoaren esleipena . . . . .	10.022
---	--------

**DERRIGORREZKO DIRUBILKETA AGENTZIA**

Premiandu probidentzia jakinaraztea eta epatzea. Zerrendan lehena: Cebrian TC, S.L. . . . .	10.022
Premiandu probidentzia jakinaraztea eta epatzea. Zerrendan lehena: Aztiria Carnero, Ignacio. . . . .	10.023
José Luis Diéguez Rodríguez jaunak epe luzean gauzatzeko bere izenean dituen kredituak bahitzeko jakinarazpena . . . . .	10.024

**I - DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

**Disposiciones y Resoluciones Administrativas**

**Acuerdos del Consejo de Diputados**

Acuerdo 920/2004, del Consejo de Diputados de 9 de noviembre, que aprueba la declaración de Utilidad Pública de diversos montes propiedad de la Diputación Foral sitios en los términos municipales de Arraia-Maeztu, Aramaio y Vitoria-Gasteiz. . . . .	10.003
Acuerdo 918/2004, del Consejo de Diputados de 9 de noviembre, que aprueba la Oferta de Empleo Público del Instituto Foral de la Juventud-Gazteriaren Foru Erakundea . . . . .	10.005

**Órdenes Forales**

**DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE**

Orden Foral 880/2004, de 27 de octubre, por la que se aprueba el Plan de Gestión de la Nutria Lutra lutra (Linnaeus 1758) en el Territorio Histórico de Álava. . . . .	10.006
--	--------

Orden Foral 917/2004, de 4 de noviembre, por la que se subsanan los errores advertidos en la Orden Foral número 717/2004 de 9 de agosto que estableció la normativa que regula el aprovechamiento cinegético en el Coto Social de Kuartango durante la campaña cinegética 2004-2005 . . . . .	10.014
---	--------

**Anuncios**

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS**

Acto administrativo que requiere ser notificado y que, debido a diversas causas, no ha podido ser objeto de notificación personalizada. . . . .	10.015
Actos administrativos que requieren ser notificados y que, debido a diversas causas, no han podido ser objeto de notificación personalizada y que comienza por Explotaciones Hoteleras Bensa, S.L. y termina por la Sociedad Talleres Mengar, S.L. . . . .	10.016

Notificación actos administrativos a sujetos pasivos de Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Sucesiones y Donaciones. . . . .	10.016
--	--------

**DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE**

Convocatoria de subasta pública del "Aprovechamiento forestal extraordinario de un lote de arbolado señalado en el denominado "RAL" de Murguía, consorciado con Diputación Foral de Álava". . . . .	10.017
---	--------

**INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD**

Concurso para la contratación del servicio de comidas en el albergue "Carlos Abaitua" en 2005. . . . .	10.018
Concurso para la contratación del servicio de comidas en el albergue de "Espejo-Jorge Díez Elorza" en 2005-2006. . . . .	10.019
Concurso para la contratación del servicio de comidas en el albergue de "Isla de Zuhatza" en 2005-2006. . . . .	10.021

**INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL**

Adjudicación Concurso Público para la contratación del suministro de "Vestuario y Prendas de Trabajo". . . . .	10.022
--	--------

**AGENCIA EJECUTIVA**

Notificación y emplazamiento de providencia de apremio, según relación que comienza por: Cebrian TC, S.L. . . . .	10.022
Notificación y emplazamiento de providencia de apremio, según relación que comienza por: Aztiria Carnero, Ignacio. . . . .	10.023
Notificación de embargo de créditos a largo plazo a nombre de don José Luis Diéguez Rodríguez. . . . .	10.024

ten proposamena egin du lanpostuen zerrendarekin bat etorri. Eskaintza horretan, aurrekontuez hornitutako lanpostu hutsak sartuko dira, zerbitzu publikoek ondo funtziona dezaten lanpostu horiek orain bete behar baitira eta ezin da atzeratu. Lanpostu horietaz gain, bete beharreko beste hainbat plaza ere sartu dira, Erakunde Autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2004ko uztailaren 14an egin zuen bilkuran bere iritzipean jarri ondoren. Azkenean proposamena Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluari igorri zen.

Kontuhartzaitza Zerbitzuari arazuko txostena eskatu zaio.

Horregatik guztiagatik, Gazteriaren Foru Erakunde Administrazio Kontseiluak eta Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egingadako bilkuran aztertu ondoren, ondokoa

#### XEDATU DUT:

Lehenengo.- Gazteriaren Foru Erakundearen zerbitzuko lan kontratupeko langileen lanpostuak betetzeko 2004ko enplegu eskaintza publikoa onartzea. Lanpostu horiek erabaki honekin batera dagoen eranskinean azaltzen dira.

Bigarren.- Eranskin horretan barne sustapenerako gorde diren lanpostuak adierazten dira. Lanpostu horiek bide horretatik betetzen ez badira, txanda irekian eskainiko diren lanpostuei gehituko zaizkie.

Hirugarren.- Hauta-probetan, barne sustapenerako gordetako lanpostuak betetzekoetan barne, elbarriek gainontzeko hautagaiek dituzten baldintza berak izango dituzte parte hartze eta onartuak izateko.

Laugarren.- Lehiaketa-oposizioa izango da eskaintako lanpostuetan sartzeko sistema orokorra. Haren prozesua eta baldintzak, berriz, hurrengo deialdietan finkatuko dira, eta orduan ere horretarako oinarriak onartuko dira.

Bosgarren.- Erabaki hau eta bere eranskina Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 9a.- Diputatu nagusiordea, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.- Kultura, Gazteria eta Kirol Saileko foru diputatua, FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN.

#### Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren eranskina

LANPOSTUAK	K.E.	D.E.	T.T.	T.L.	B.S.	H.E.D	H.E.E.D.
<b>ARLOA: 1 ZERBITZU OROKORRAK</b> Idazkaritza Teknikoko burua	LF	E	A	1			1
<b>ARLOA: 2 EGOITZAK</b> UNITATEA: 30.1000 BARRIAKO ATERPETXEA							
Garbiketa eta Zerbitzu espezialista	ALF	O	D	1			1
<b>ARLOA: 2 EGOITZAK</b> UNITATEA: 30.4000 ZUHATZAKO ATERPETXEA							
Txaluparia	ALF	O	C	1		1	
Kirol espezialista	ALF	O	C	5		2	3

#### Laburtzapenak:

K.E.: Kontratazio Erregimena (LF: Lan-kontratu finkoa, ALF: Aldizkako lan-kontratu finkoa).

D.E.: Dedicazio erregimena (E: Erabatekoa, O: Ohikoa).

T.T.: Titulazio taldea.

T.L.: Txanda irekia.

B.S.: Barne sustapena.

H.E.D.: Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa.

H.E.E.D.: Hizkuntza eskakizuna ez derrigorrezkoa.

#### Foru Aginduak

#### HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

7.122

880/2004 FORU AGINDUA. urriaren 27koa. Honen bidez. *Lutra lutra* Igarabaren (Linnaeus. 1758) Kudeaketa Plana onartzen da, Arabako Lurralde Historikoan

Ekinaren 30eko 16/1994 Legearen 47. artikuluan, Euskal Herriko Natura Babestekoan, Baso eta Itsas Fauna eta Landareen Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa sortzen da. Katalogo horretan jaso-

puesta de oferta de empleo de acuerdo con la Relación de Puestos de Trabajo, en la que se comprenden las vacantes existentes, dotadas presupuestariamente, cuya provisión se considera inaplazable para el buen funcionamiento de los servicios públicos, con inclusión en la oferta de empleo tanto de las plazas que han de proveerse y que fue sometida a la consideración del Consejo de Administración del Organismo Autónomo durante la reunión que mantuvo este órgano colegiado el día 14 de julio de 2004, el cual decidió elevarla al Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Álava.

Solicitado el informe preceptivo previo del Servicio de Intervención.

En su virtud, a propuesta del Consejo de Administración del Instituto Foral de la Juventud-Gaztediaren Foru Erakunde y del Diputado Foral del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

#### DISPONGO:

Primero.- Aprobar la Oferta de Empleo Público de las plazas del personal laboral al servicio del Instituto Foral de la Juventud-Gazteriaren Foru Erakunde, para el año 2004, que figuran en el anexo que se incorpora al presente Acuerdo.

Segundo.- Se indican en el citado Anexo, las plazas reservadas a la promoción interna, las cuales en caso de resultar desiertas, acrecerán a las ofertadas en turno libre.

Tercero.- En el proceso selectivo, incluidas las plazas reservadas a la promoción interna, las personas con minusvalías concurrirán y serán admitidas en igualdad de condiciones que el resto de aspirante.

Cuarto.- El sistema general de acceso sea el de concurso-oposición, fijándose en las correspondientes convocatorias el procedimiento y requisito para el acceso a las plazas ofertadas con arreglo a las bases que en su momento se aprueben.

Quinto.- Publicar el presente Acuerdo y su Anexo en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2004.-El Teniente Diputado General, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.- El Diputado de Cultura, Juventud y Deporte, FEDERICO VERÁSTEGUI COBIÁN.

#### Anexo al Acuerdo del Consejo de Diputados

PLAZAS	R.C.	R.D.	G.T.	T.L.	P.I.	PL.P.	PL.N.P.
<b>ÁREA: 1 SERVICIOS GENERALES</b>							
Jefe de Secretaría Técnica	L	E	A	1			1
<b>ÁREA: 2 RESIDENCIAS</b>							
UNIDAD: 30.1000 ALBERGUE DE BARRIA							
Especialista de Limpieza y Servicios	D	N	D	1			1
<b>ÁREA: 2 RESIDENCIAS</b>							
UNIDAD: 30.4000 ALBERGUE DE ZUAZA							
Barquero	D	N	C	1		1	
Especialista Deportivo	D	N	C	5		2	3

#### Abreviaturas:

R.C.: Régimen de Contratación (L: Laboral Fijo, D: Laboral Fijo-Discontinuo).

R.D.: Régimen de Dedicación (E: Dedicación Exclusiva, N: Dedicación normal).

G.T.: Grupo de Titulación.

T.L.: Turno Libre.

P.I.: Promoción Interna.

PL.P.: Perfil lingüístico preceptivo.

PL.N.P.: Perfil lingüístico no preceptivo.

#### Órdenes Forales

#### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

7.122

ORDEN FORAL 880/2004, de 27 de octubre, por la que se aprueba el Plan de Gestión de la Nutria *Lutra lutra* (Linnaeus, 1758) en el Territorio Histórico de Álava.

El artículo 47 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco crea el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas de la Fauna y Flora, Silvestre y Marina, el cual esta in-

tzen dira babes-neurri bereziak eskatzen dituzten espezie, azpiespezie eta populazioak.

Eusko Jaurilaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuak, katalogo hori arautzen duenak, *Lutra lutra* igaraba (Linnaeus, 1758) jasotzen du "desagertzeko arriskuan" dauden espezieen kategorian.

Espezie hori katalogatzeak berarekin dakar kudeaketa plana egi-tea, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 50.1 artikulua jasotzen babes-neurriez gain. Kudeaketa plan horrek espezieak desagertzeko dituen mehatxuak saihesteko jarraitu behar diren arau zezeuntzaileak eta neurriak biltzen ditu, populazioa berreskuratzea, kontserbatzea eta erabiltzea sustatuz, bai eta habitataren babesa eta mantenimen-dua ere, aipatutako legearen 50.3 artikulua arabera.

Eskumena daukaten administrazioen arteko koordinazioaren ondorioz, lantalde bat eratu zen, Eusko Jaurilaritzako eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundietako teknikariek osatuta; talde horrek idatzi zuen, espeziearen adituak diren beste aditu batzuekin, Igarabaren Kudeaketa Plana, Euskal Herriari dagokionez.

Kudeaketa plan hori idatzi ondoren, eta Eusko Jaurilaritzaren uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuaren 8.2 artikulua aplikatuz, espezieak bere habitat naturala duen edo haren berreskuraketa bultzatzen duen lurralde historikoetako foru organoei dagokie hura onartzea, eta lurraldearen geografiara eta espeziearen berriazko berezitasunetara eta egoerara egokitzea.

Horregatik guztiagatik, eta azaroaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta arau hori uztailaren 9ko 127/2003 Foru Dekretuaren zortzigarren artikulua diotenarekin lotuz,

#### XEDATU DUT:

1. artikulua.- *Lutra lutra* Igarabaren (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzea Arabako Lurralde Historikoan; plan hori foru agindu honen I. eranskin gisa agertzen da.

2. artikulua.- Hirigintza eta Ingurumen Sailari dagokio Igarabaren Kudeaketa Planaren aurretiko eta ondorengo jarduerak garatzea eta gauzatzea. Jarduera programen bidez gauzatu daiteke kudeaketa plan hori, eta programa horiek zehaztu egingo dira espazioan zein denboran.

3. artikulua.- Kudeaketa plan hori bere osotasunean aplikatuko da, eta denbora mugaketa gabe, indarrean sartzen denetik espezie horri "desagertzeko arriskuan" katalogazioa kendu arte.

Espeziea kontserbatzean eta espeziearen habitataren egoeran oinarritzko aldaketak gertatzen badira, edo ezagutzen badira, Hirigintza eta Ingurumen Sailak berraztertu egin dezake honako kudeaketa plana, eta berriro definitu, hala beharko balitz, bai jarduera eremua eta helburu nagusiak, bai arau zuzentzaileak eta hartutako neurriak.

Edonola ere, eta planak amaierako epe jakinik ez eduki arren, bost urterik behin berraztertuko da.

4. artikulua.- Kudeaketa plan honen jarduera eremuak Arabaren sare hidrografiko osoa hartuko du. Eremu horrek uztailaren 20ko 17/2001 Legegintzako Errege Dekretuak zehazten duen jabari publiko hidraulikoa eta zortasun esparrua hartzen ditu. Dekretu horren bidez onartu zen Uren Legearen Testu Bateratua.

Jarduera eremu horren barruan honako hauek hartuko dira Igarabaren Interes Berezikoko Eremu gisa:

- ES2110005 zenbakidun KITa, Omecillo eta Tumecillo ibaiak.
- ES2110006 zenbakidun KITa, Baias ibaia.
- ES2110008 zenbakidun KITa, Ebro ibaia
- ES2110010 zenbakidun KITa, Zadorra ibaia
- ES2110011 zenbakidun KITa, Zadorraren urtegiak
- ES2110012 zenbakidun KITa, Ayuda ibaia
- ES2110020 zenbakidun KITa, Ega eta Berron ibaiak
- Inglares ibaia (Urizaharra herriaren arteko eta Ebro ibaiko bokalera arteko tartea).
- Izki ibaia.

Honako kudeaketa plan honen aplikaziorako jarduera eremuak foru agindu honen II. eranskinean daude mugatuta.

5. artikulua.- Naturgune babestuekin bat datozen Interes Berezikoko Eremutzat hartzen diren lekuen erabilera eta jarduerak Baliabide

tegrado por las especies, subespecies o poblaciones cuya protección exige medidas específicas.

El Decreto 167/1996, de 9 de julio, del Gobierno Vasco, regulador de este catálogo incluye a la Nutria *Lutra lutra* (Linnaeus, 1758), dentro de la categoría de especies catalogadas como "En Peligro de Extinción".

La catalogación de dicha especie conlleva, además de la aplicación de las medidas protectoras establecidas en el artículo 50.1 de la Ley 16/1994 de 30 de junio, la elaboración de un Plan de Gestión que contendrá las directrices y medidas necesarias para tratar de eliminar las amenazas existentes sobre dicha especie, promoviendo la recuperación, conservación o manejo adecuado de sus poblaciones, así como la protección y mantenimiento de sus hábitats, conforme dispone el artículo 50.3 de dicha Ley.

En coordinación de los diferentes estamentos de las Administraciones competentes, se constituyó un grupo de trabajo formado por técnicos del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa, que redactó, junto con especialistas en la especie, un Plan de Gestión para la Nutria, en el marco del País Vasco.

Redactado este Plan de Gestión, por aplicación del artículo 8.2 del Decreto 167/1996, de 9 de julio, del Gobierno Vasco, compete su aprobación a los Órganos Forales de los Territorios Históricos en cuyo ámbito tuviese la especie su distribución natural o se promoviese su recuperación, adaptándolo a las peculiaridades específicas y circunstancias de la subpoblación y a la geografía de su Territorio.

En su virtud, en el ejercicio de las facultades que me otorga el artículo 40 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de noviembre, en relación con el artículo Octavo del Decreto Foral 127/2003 del Diputado General, de 9 de julio.

#### DISPONGO:

Artículo 1.- Se aprueba el Plan de Gestión de la Nutria *Lutra lutra* (Linnaeus, 1758) en el Territorio Histórico de Álava, que se acompaña como Anexo I a esta Orden Foral.

Artículo 2.- Corresponde al Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente el desarrollo y ejecución de las actuaciones previas y derivadas del Plan de Gestión de la Nutria. El Plan de Gestión podrá desarrollarse mediante Programas de Actuaciones que concretarán en el tiempo y en el espacio la ejecución de sus previsiones.

Artículo 3.- Este Plan de Gestión se aplicará íntegramente y con carácter indefinido desde su entrada en vigor hasta que la especie se descatalogue como "En Peligro de Extinción".

En la medida en que se produzcan y conozcan variaciones sustanciales en el estado de conservación de la especie o de su hábitat, el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente podrá revisar el contenido del presente Plan de Gestión, redefiniendo si procede tanto el ámbito de actuación, como los objetivos generales, directrices y medidas previstas para su cumplimiento.

En cualquier caso, y sin perjuicio de su carácter indefinido, se efectuará una revisión del Plan cada cinco años.

Artículo 4.- El ámbito de aplicación del presente Plan de Gestión está constituido por toda la red hidrográfica de Álava. Dicho ámbito abarca el dominio público hidráulico y su zona de servidumbre definida en el Real Decreto Legislativo 17/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Aguas.

Dentro de este ámbito de aplicación se considerarán Áreas de Interés Especial para la Nutria las zonas siguientes:

- LIC número ES2110005 ríos Omecillo y Tumecillo
- LIC número ES2110006 Río Bayas
- LIC número ES2110008 Río Ebro
- LIC número ES2110010 Río Zadorra
- LIC número ES2110011 Embalses del Zadorra
- LIC número ES2110012 Río Ayuda
- LIC número ES2110020 Ríos Ega y Berrón
- el río Inglares (el tramo comprendido entre la localidad de Peñacerrada-Urizaharra y su desembocadura en el Ebro)
- el río Izki

La delimitación de las zonas que constituyen el ámbito de aplicación del presente Plan de Gestión figura en el anexo II de esta Orden Foral.

Artículo 5.- La regulación de los usos y actividades en las Áreas de Interés Especial que coincidan con espacios naturales prote-

Naturalen Antolaketa Planen eta Erabilera eta Kudeaketa Plan Zuzentzaileen bidez egingo dira, edo nahi diren helburuetarako beharrezkotzat jotzen diren planifikazio-tresna berezien bidez. Edonola ere, plan horiek kontuan hartu beharko dute zein den "desagertzeko arriskuan" katalogazioaren menpean dagoen espeziea, eta haren zonaketa eta muga orokorrak eta berariazkoak egokitu egin beharko dituzte kudeaketa plan honetan ezarritako helburuetara, arau zuzentzaileetara eta espeziea eta bere habitata kontserbatzeko hartu diren neurrietara.

6. artikulua.- Arabako Lurralde Historiko guztian honako behar hauek jarriko dira indarrean igarabari dagokionez:

a) Baimendu gabeko edozein jarduera, baldin eta espeziea (kumeak barne) hiltzeko, harrapatzeko, jazartzeko edo gogaitzeko asmoa badu, eta, era berean, haien habitata eta bereziki kumeak hazteko eta atsedean hartzeko lekuak suntsitzeko egiten bada.

b) Ale biziak edo hilak edukitzea, bertakotzea, garraiatzea, saltzea, jendaurrean jartzea, inportatzea edo esportatzea, araudiz zehazten diren kasuetan izan ezik.

c) Espezie honen habitat naturalean, populazioarengan eragin negatiboa izango duten beste espezie animalia batzuk sartzea.

7. artikulua.- Animaliek ugalketarako eta babesteko erabiltzen duten habitata aldatzeko, espeziearentzako "Interes Bereziko Eremuak" deiturikoetan edozein jarduera egin nahi bada, Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza eta Ingurumen Sailaren baimena eduki beharko da alde zurretik.

8. artikulua.- Espeziearentzako interes bereziko eremuetan zuzeneko edo zeharkako eragina duen edozein plan edo proiektu egin nahi bada, bakarka zein beste plan edo proiektuarekin batera, Arabako Foru Aldundiaren Hirigintza eta Ingurumen Sailaren alde zurretik txosten beharko da horretarako. Txosten horretan proiektuak kudeaketa planaren helburuetan izango duen eragina aztertuko da. Ebaluazio horrek kontuan hartuko du, beste gauza batzuen artean, proiektuak uren kalitatean izango duen eragina.

9. artikulua.- Egindako azpiegitura edo instalazioen zein horietarako baimen-eskarien edo esleipenen titularrak, baldin eta azpiegitura horiek Interes Bereziko Eremuetan kokatuta badaude eta espeziearengan eragin larria eta zuzena badute, Hirigintza eta Ingurumen Sailaren arau zuzentzaileak hartuko dituzte kontuan, mehatxu horren eragina ahalik eta gehien arintzeko edo erabat ezabatuzko.

10. artikulua.- Kudeaketa Planaren eremuan ematen diren baimenen edo esleipenen administrazio-prozedurak, bai eta ingurumenaren izango duten eragina aztertzen dutenak ere, jarduerak eta proiektuak espeziearen eta haren populazioan izan dezaketen eraginaren balorazioa, ikerketa eta diagnostikoa aztertuko duten txostenak eramango dituzte. Txosten eta ikerketa horiek honako hau hartuko dute kontuan: gaur egun espeziea dagoen guneeetan dauden baldintzak mantentzeko neurriak hartzea, eta, era berean, espezieak behar dituen baldintzak betetzen ez dituzten eremuetako habitata berreskuratzeko neurri zuzentzaileak jartzea.

11. artikulua.- Lurraldeko eta hirigintzako plangintzarako tresnek igarabaren habitata zaintzea, mantentzea eta berreskuratzea bermatuko dute, eta, habitat horiek mugatu beharko balira, hori arrazoitu egin beharko litzateke.

12. artikulua.- Foru agindu honetan xedatzen diren arau zuzentzaileak eta neurriak ezartzean ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, lankidetzarako hitzarmenak eta beharrezko mekanismoak jarriko dira, Eusko Jaurlaritzarekin eta foru aldundiekin, zein inplikaturiko udalekin.

13. artikulua.- Foru agindu honetan xedatutako betetzen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Izadia Zaintzeko ekainaren 30eko 16/1994 Legean edo dagokion arautegietan ezarritako zigorrik jarriko dira. Gainera, bide penalean, zibilean edo beste edozeinetan jasotako erantzukizuna ere eskatu ahal izango da.

#### AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urriaren 27a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, MARTA ALAÑA ALONSO.

gidos se realizará, en su caso, mediante los Planes de Ordenación de los Recursos Naturales y los Planes Rectores de Uso y Gestión u otros instrumentos de planificación específicos que se estimen oportunos a tal fin. En cualquier caso, dichos planes tendrán en cuenta la existencia en su ámbito territorial de estas especie catalogada "En Peligro de Extinción" y adaptarán su zonificación y limitaciones generales y específicas a los objetivos, directrices y medidas de conservación de la especie y del hábitat establecidas en el presente Plan de Gestión.

Artículo 6.- Son aplicables en todo el Territorio Histórico de Álava las siguientes prohibiciones genéricas con respecto a la Nutria:

a) Cualquier actuación no autorizada hecha con el propósito de darles muerte, capturarlos, perseguirlos o molestarlos, incluyendo a sus crías, así como la destrucción de su hábitat y en particular de sus lugares de cría y reposo.

b) Poseer, naturalizar, transportar, vender, exponer, importar o exportar ejemplares vivos o muertos, salvo en los casos que expresamente se autoricen.

c) Introducir en el medio natural otras especies animales que puedan afectar negativamente a sus poblaciones.

Artículo 7.- Cualquier actuación dentro de las "Áreas de Interés Especial para la especie" que implique la modificación de las características del hábitat utilizado para la reproducción o como refugio por la especie, necesitará autorización previa del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 8.- Cualquier plan o proyecto con repercusión apreciable, directa o indirectamente, sobre la conservación o recuperación de la especie en las áreas de interés especial para la especie, ya sea individualmente o en combinación con otros planes o proyectos, deberá ser sometido a informe preceptivo del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, que velará por una adecuada evaluación de sus repercusiones sobre los objetivos del presente Plan de Gestión. Dicha evaluación contemplará, entre otros aspectos, las posibles afecciones a la calidad de las aguas.

Artículo 9.- Los titulares de cualquier infraestructura o instalación ya realizada y/o de autorizaciones o concesiones en vigor, ubicadas en las Áreas de Interés Especial, que impliquen una afección grave y directa sobre la especie, deberán atender las directrices de seguridad que elabore el Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente a fin de eliminar o atenuar el factor de amenaza.

Artículo 10.- Los procedimientos administrativos de autorizaciones o concesiones en el ámbito del Plan de Gestión, así como los de Evaluación del Impacto Ambiental, incluirán los informes y estudios necesarios para el análisis, diagnóstico y valoración de las repercusiones e impactos que sobre la especie y su dinámica poblacional pudieran tener las actuaciones y proyectos. Dichos informes y estudios contendrán, las medidas preventivas encaminadas al mantenimiento de las condiciones necesarias del hábitat y de la especie en las zonas de presencia actual, así como las medidas correctoras dirigidas a la restauración del hábitat en los casos en los que el mismo no cuente con los requerimientos de la especie.

Artículo 11.- Los instrumentos de planeamiento territorial y urbanístico asegurarán la preservación, mantenimiento o recuperación de los hábitats de la Nutria, justificando los casos en que sea necesario limitarlos.

Artículo 12.- A efectos de lograr la máxima eficacia en la aplicación de las directrices y medidas previstas en esta Orden Foral, se establecerán los convenios y demás mecanismos de coordinación, que sean necesarios con los departamentos del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales, así como con los ayuntamientos implicados.

Artículo 13.- Las infracciones a lo dispuesto en la presente Orden Foral serán sancionadas de acuerdo a lo establecido en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco o normativa administrativa que corresponda, sin perjuicio de la responsabilidad exigible en vía penal, civil o de otro orden en que se pueda incurrir.

#### DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de octubre de 2004.- La Diputada Foral de Urbanismo y Medio Ambiente, MARTA ALAÑA ALONSO.

## I. eranskina

*Lutra lutra*  
IGARABA (Linnaeus, 1758)

## 1.- ESPEZIEIA

## 1.1.- Espeziearen ezaugarriak.

Neurri txikiko mustelidoa da. Neurriari dagokionez, dimorfismo sexual nabarmena du. Ar helduen pisua 5,5 eta 9,5 kiloren artekoa da, eta luzera 100 eta 120 zentimetroren artekoa. Emeen pisua, berriz, 4,4 eta 6,5 kiloren artekoa da, eta horien luzera 90 eta 110 zentimetroren artekoa. Buztanaren luzera ez da gorputzarena baino handiagoa. Ilajea motza da, arre kolorekoa, eta ilunagoa bizkarrean. Hankak motzak eta indartsuak dira, eta behatz-arteko mintzak ditu eskuetan eta oinetan.

1.1.1. Ezaugarriak eta Euskal Autonomia Erkidegoan duen banaketa

Nongoa den espeziea eta non dagoen.

Paleartikoa da espeziea. Europako mendebaleetik Indonesiaraino dago zabalduta, eta tundra artetik Afrikaren iparralderaino. Europa osoan dago hedatuta, baina, azkenaldian honetan, gainbehera nabaria izan du, eta desagertu egin da Herbehereetan eta Suitzan, eta Frantziako, Belgikako, Alemaniako, Italiako eta Suediako eremu zabaletan.

Euskal Herrian, antza denez, nahiko ugaria da, eta 1960-70 hamarkadan nahiko zabalduta zegoen; urte horietan hasi zen desagertzen isurialde kantauriarraren ibaietan, eta ia desagertu egin da azken 20 urteetan. Gaur egungo egoera honako hau da: Ebro ibaian era egonkorrean mantentzen da, Arabako Lurralde Historikotik egiten duen ibilbide osoan, bai eta Zadorra eta Ayuda ibaietako erdiko tartean eta behekoan ere. Bestalde, Omecillo, Tumecillo, Baias, Inglares eta Ega ibaietan ere aurkitzen da.

## 1.1.2.- Habitata eta biologia.

Ur-ibilguetan bizi da, lakuetan, urtegietan eta kostako uretan, baldin eta ibai-ertzeta landare ugariz hornituta badago. Hosto lehorrekin, belarrekarekin eta goroldioarekin egiten du habia, eta harkaitz artean, zuhaitzen enborretan, zingira-landareetan eta sasietan aurkitzen da; batzuetan, gizakiak egindako egituretan ere bai.

Animalia honek dieta karniborua du, eta batez ere uretan eta ibai-ertzetan harrapatzen dituen ornodunak jaten ditu. Arrainak dira haren oinarritzako elikadura, eta dieta hori karramarroekin, anfibioekin, narrastiekin, hegaztiekin, ugaztunekin eta intsektuekin osatzen du.

Gauetz burutzen du bere jardura nagusia igarabak, batez ere arratsaren ondoren eta egunsentia baino lehen. Toki lasaietan, eguneko zenbait ordutan ere izan daiteke aktiboa. Jarduerak neguan ere jarraitzen du, hibernaziorik gabe.

Igarabaren elikatze-eremuek itxura lineala dute, eta ibai-ertzetan zehar egoten dira. Lurraldeen neurriak urtaroen menpe eta ibaiaren kalitatearen menpe daude (lurralde handiagoak erabiltzen dituzte babesgune gutxi dauden lekuetan eta ekoizpen gutxikoetan). Igarabarentzako egokiak diren ibai eta lakuetan, 2tik 4 alera aurkitu izan dira 10 kilometrotik behin. Baldintza desagokiagoak badituzte, ale bat baino gutxiago aurkitzen da 10 kilometrotik behin.

Arren lurraldeak emeenak baino handiagoak izaten dira; beraz, sexuen arteko gainjartzea handia izaten da, eta sexu berekoen artekoa aldakorra. Kumeak dituzten emeak eremu bereiztuak hartzen dituzten beren artean, eta ez beti elkarren ondoan. Arren arteko mendekotasun hierarkikoak aurkitu izan dira, zeren eta mendearen hartutako animaliak ikusi izan baitira inguruan, habitat desagokietan. Helduak bakarka bizi dira, euren artean babes-lekuak konpartitu gabe.

Emeak 12tik 14 hilabetera bitarteko epeetan erditu daitezke; bestalde, hamalau eguneko araldia du, eta hori 40 edo 45 egunez behin errepikatzen du urte osoan, ernaltzen ez badute. 61-63 eguneko ernaldiaren ondoren erditzen da emea, ezarpen atzeraturik gabe. Jaiotzak urte osoan zehar gertatzen dira, baina ugariagoak dira maiatzetik urria bitartean. Kumaldiak 1etik 5erakoak izaten dira (gehienetan 2-3). Jaiotzako sexu-ratioa 1:1 da, eta mantendu egiten da helduak direnean. Bizitzako lehenengo hilean heriotza kopuru handia dago. Titia kentzea jaio eta handik 16 aste aldera gertatzen da, eta familia taldeak 10-12 hilabeteren buruan desagitzen dira. Sakabanatuta daudenen heriotza kopurua oso altua da (antza denez, handiagoa arren artean). Gazteek bi urterekin lortzen dute heldutasun sexuala; hala ere, ez da harritzekoa lehenengo erditzea 3-4 urte dutenean gertatzea. Gatibu daudenean 15 urtera arte iritsi daitezke, baina, basoan bizi direnean, batez besteko bizitza askoz motzagoa da (3-4 urte).

## Anexo I

NUTRIA  
*Lutra lutra* (Linnaeus, 1758)

## 1.- LA ESPECIE

## 1.1.- Características de la especie.

Mustélido de mediano tamaño. Presenta un marcado dimorfismo sexual. El peso de los machos adultos oscila entre 5'5 y 9'5 kg y la longitud total toma valores entre 100 y 120 cm. El peso de las hembras adultas oscila entre 4'4 y 6'5 kg y la longitud total oscila entre 90 y 110 cm. La longitud de la cola no excede la del cuerpo. El pelaje es corto, de color pardo oscuro, más intenso en el lomo. Las patas son cortas y fuertes y presentan membranas interdigitales en las manos y pies.

1.1.1. Carácter y distribución en la Comunidad Autónoma del País Vasco

Especie autóctona y residente.

Especie paleártica que se extiende desde el oeste de Europa hasta Indonesia y desde la tundra ártica al norte de África. Ampliamente distribuida por toda Europa, ha sufrido un reciente y acusado declive que la ha llevado a desaparecer de Holanda, Suiza, y de grandes zonas de Francia, Bélgica, Alemania, Italia y Suecia.

En el País Vasco se supone relativamente abundante y bien repartida hasta la década 1960-70, momento en el que comenzaría su desaparición de los ríos de la vertiente cantábrica, completándose ésta en apenas 20 años. La situación actual muestra a la Nutria ocupando de manera estable el río Ebro en todo su recorrido por el Territorio Histórico de Alava y los tramos medio y bajo de los ríos Zadorra y Ayuda. Existen también observaciones en los ríos Omecillo, Tumecillo, Bayas, Inglares y Ega.

## 1.1.2.- Hábitat y biología.

Habita en cursos de agua, lagos, embalses y aguas costeras en los que las riberas estén recubiertas de vegetación densa. El nido hecho con hojas secas, hierba y musgo se localiza entre rocas, raíces de árboles, vegetación palustre y zarzas, y en ocasiones en estructuras humanas.

Este animal presenta una dieta carnívora basada en vertebrados que captura en el agua y en las riberas. Se alimenta principalmente de peces, completando su dieta con cangrejos, anfibios, reptiles, aves, mamíferos e insectos.

La Nutria desarrolla su actividad principalmente durante la noche, con máximos después del anochecer y antes del amanecer. En lugares tranquilos también se muestra activa durante las horas del día. La actividad continúa durante el invierno sin hibernación.

Las áreas de campeo de las nutrias suelen tener forma lineal y se extienden a lo largo de las orillas de los ríos. El tamaño de los territorios depende en gran parte de la estación del año y de la calidad del río (mayores territorios en las zonas con escasez de refugios y baja productividad). En ríos y lagos especialmente favorables se han registrado densidades de entre 2 y 4 individuos cada 10 km. En condiciones menos favorables los valores suelen ser inferiores a un ejemplar cada 10 km.

Los territorios de los machos son mayores que los de las hembras, siendo el solapamiento intersexual grande y el intrasexual variable. Las hembras con cachorros ocupan áreas separadas entre sí y no necesariamente contiguas. Existen evidencias de dominancia jerárquica entre los machos, con animales subordinados encontrados en la periferia, en los hábitats menos favorables. Los adultos viven de forma solitaria, sin compartir los lugares de refugio.

La hembra, capaz de reproducirse a intervalos de 12 a 14 meses, presenta un estro de unos catorce días que repite cada 40 o 45 días durante todo el año en caso de no ser fecundada. Pasa después de una gestación, sin implantación retardada, de 61-63 días. Los nacimientos tienen lugar a lo largo de todo el año, siendo más frecuentes entre mayo y octubre. El tamaño de camada varía entre 1 y 5 (generalmente 2-3). La sex ratio al nacer es 1:1 y se mantiene en la fracción adulta. La mortalidad en el primer mes de vida es elevada. El destete tiene lugar en torno a las 16 semanas y los grupos familiares se deshacen en torno a los 10-12 meses. La mortalidad de los dispersores es elevada (parece ser mayor entre los machos). Los jóvenes alcanzan la madurez sexual a los dos años de edad, sin embargo, no es extraño que el primer parto se retrase hasta los 3-4 años. En cautividad pueden llegar a alcanzar los 15 años de edad, pero la vida media en estado silvestre es mucho menor (3-4 años).

## 1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden populazioen egoera.

Azkenaldi honetan ez da aurkitu alerik isurialde kantauriarrean; beraz, pentsa daiteke desagertu egin dela azken 25 urte hauetan. Nafarroan, 2000. urtean egindako laginketa batek erakusten du dezente berreskuratu dela espezie hori lurralde horretan, eta agertzen dela, era berean, Bidasoa, Ezkurra eta Larraun ibaietan ere, Gipuzkoatik hurbil dauden tokietan. Mendebalean, igaraba dagoen hurbileneko tokia Besaya ibaia da (Kantabria).

Mediterranioko isurialdean, nahiz eta orain dela 30 urte oso zabaldua egon, gaur egun era egonkorrean honako toki hauetan bakarrik dago: Ebro ibaian eta ibai horrek Araban dituen adarrek osatzen duten sarean, hau da, Omecillo, Baias, Zadorra-Ayuda, Inglares eta Ega ibaiak (2002-2003. urteak). Ebro eta Zadorra ibaiak duten kutsadura dela-eta, horien emankortasuna dezente murriztuta dago; pentsa daiteke, beraz, ezin dutela mantendu igaraba kopuru handirik beren uretan.

Arabako igarabak Ebro ibaiaren goi-arroan dagoen populazioaren zati dira. Populazio hori Ebro urtegiaren (Kantabria) eta Tuterako herriaren (Nafarroa) artean dagoen ur-ibilguan zehar dago hedatuta.

## 1.3.- Populazioaren eboluzioan eragiten duten mehatxuak eta faktoreak.

Igarabaren bizitza-zikloa oso era estuan dago lotuta ibaietako ekosistemarekin; pentsa daiteke, beraz, ibaien aldaketek erabat baldintzatzen dutela igaraba ibaietan agertzea.

Habitata aldatzeko era asko dago, eta horien artean: ibai-ertzak desagertzea, ura kutsatzea, ibai-ibilguak larregi ustiatzea eta urtegiak egitea.

Igarabak inguru-baldintza egokiak behar ditu irauteko, eta horien artean ibai-ertzetako landareak aipatu behar dira bereziki, zeren eta horietan aurkitzen baitu babesa. Europaren erdialdean eta iparraldean, hain zuzen ere, horekin lotu izan da igarabaren desagertzea, hau da, ibar-basoak kentzearekin, eta hori hirian edo industrialdeetan egindako eraikinen ondorioz ibai-ibilguak aldatzearekin eta ibaiak kanalizatzearekin dago lotuta. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), azken 30 urte hauetan ibai-ertzak babesteko eta horien egonkortasuna lortzeko egin diren jarduerak direla-eta, ibai-ertzetako landareak desagertu egin dira zenbait lekutan, batez ere oinarritzko ibai-ibilguetan, eta, bereziki, isurialde atlantikoan. Leku horren orografia malkartsuak eragiten du jende asko biltzea haraneko hirietan eta industrialdeetan.

Uren kutsadurak igarabaren gainean duen eragina oso ondo dago frogatuta. Eragin hori ez da zeharkakoa bakarrik, berak behar dituen harrapariak gutxitzen dituelako, zuzeneko ere bada, haren ugaltzeko gaitasuna murriztu egiten duelako edo, besterik gabe, animalia hiltzera eramaten duelako. Europan espezie honek izan duen gain-beherarekin lotutako kutsagarriak dieldrina, PCB deiturikoak eta metal astunak dira. Bestalde, kutsaduraren arazo honek larriago bihurtzen du igarabaren iraupena, ekosistemaren sare trofikoetan gorenko mailan dagoelako, eta horrek eramaten du biodegradagarriak ez diren (edo oso maila txikian diren) osagai horiek pilatzera: gainera, asko mugitzen denez (egun gutxitan dozenaka kilometro egin ditzake), leku-aldatze horietan kutsadura mota eta maila askorekin egin dezake topo.

Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde kantauriarrean, arroa guztietako ibai-ibilgu nagusiek kutsadura handia dute. Egoera hori errepikatu egiten da Mediterranioko isurialdeko ibai garrantzitsuenetan, baina, paradoxikoa bada ere, isurialde horretan igaraba era egonkorrean bizi da.

